



Hondarribia

HERRI ALDIZKARIA
193. zkia . 2006ko abendua

HONDARRIBIKO UDALA · EUSKARA BATZORDEA · DOHAIN

AMAITU DIRA NEGUKO JARDUNALDIAK!

4-10. Herrian barrena

12-13. Elkarrizketa: Goxoki Elkarte

15-17. 2006 urtea

20. Hondarribia Pio Barojaren begietatik

27. Gazte Informazio Bulegoa

30-31. Azaroko demografia

JATETXEA-TABERNA



San Pedro, 35
20280 HONDARRIBIA

Tels. 943 64 27 71
943 64 10 19



San Pedro, 33
☎ 943 11 02 01
20280 HONDARRIBIA

*Zure terrazak betiko zerbitzu onenarekin, Hondarribiko Portua auzoan,
gastronomi espezialitate onekin*



kutxa



 **Aliprox**
SUNSUNDEGI

Telf. 943 64 15 40
Santiago kalea, 17
20280 Hondarribia

BATZOKI


TABERNA - JATETXEA



- Eguneko menua
- Menu bereziak
- Karta
- Gure terraza goza ezazu

Gora Ama Guadalupekoa

Mouriskot etxea • Tel. 943 64 53 64
20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa)




Hawaii

Errebellin kalea 3 behe

20280 HONDARRIBIA

Tel. 943 64 48 00 • Lantegiko Tel. 943 64 56 45 • Faxe 943 64 44 97

Neguko Jardunaldiak: Euskara Herrian



Urtero bezala, Euskara Batzordeak euskararen erabilera herrian sustatzeko hainbat ekitaldi antolatzen ditu negurako.

Eskaintza ahalik eta zabalen egiten saiatzen gara, herri-tar asko arlo askotan sentsibilizatzeko, eta horretarako ondorengo jarduerak antolatu ditugu:

-Haur eta gaztetxoaren artean bizikleta martxa, herri-jokoak eta aurten Txan Magoaren eskutik magia ikuskizuna.

-Gazteen artean ipuinak nahiz olerkiak euskaraz idaztea eta irakurtzea bultzatzeko Bordari eta Satarka literatur lehiaketa, Bidasoaldeko ikasleen topaketak eta euskal txiste grafikoen lehiaketa.

-Helduen artean ARTEA antzerki-obra ospetsua eta Jon

Maiaren "Apaizac obeto" hitzaldia.

-Denon artean Kalean Kantuz herri-kantu saioa, liburu eta disko azoka, eta Maltzeta Trikitilariari omenaldia-erromeria.

Ekintza horien bitartez herritarrei euskaraz parte-hartze-ko aukera ematea egokia iruditzen zaigu. Aurten erantzun ezin hobe jasotzen ari gara, eta zenbai herri-tar ere hurbildu zaigu ekitaldi batzuk gehiagotan antolatzeko eskatuz; esate baterako, Kalean Kantuz ekitaldia hilabetero antolatzeko proposamena jaso dugu, gero eta jende gehiago biltzen baitu.

Jardunaldiak izan duten arrakasta ikusita, hurrengo urtean ere aurrera segitzeko asmoa dugu.

Argitaratzailea:

Udal Euskara Batzordea

Erredakzioa/publizitatea:

ZIF & Comunicación

zifcomunicación@terra.es

Tel.: 943 63 81 28

Kolaboratzaileak:

Koldo Ortega

Ainara Elizondo

Martin Iturbe

Lurdes Zubeldia

Argazkiak:

Hondarribiko Udala

ZIF & Comunicación

Fernando de la Hera

Floren Portu

Maketazioa:

Usoa Ramírez Melón

Inprimategia:

Antza

L.G. SS 122/86

HONDARRIBIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien ondorioak.

TXANDAKO BOTIKAK ABENDUAN ETA URTARRILEAN

31- ALMAJANO Mendelu, 26	943 640068
1- ALAMEDA Harresilanda, 9	943 645798
6- ALMAJANO Mendelu, 26	943 640068
7- ALAMEDA Harresilanda, 9	943 645798
14- ERAUSKIN San Pedro, 22	943 641018
21- MAYI MARTINEZ Alonso	943 642191
28- SAGRARIO FIZ Soko merkatalgunea	943 644316

TXANDAKO OKINDEGIAK ABENDUAN ETA URTARRILEAN

31- GARMENDIA Portuan	943 641136
1- MARTINEZ Kale Nagusia, 17	943 641212
6- ARRATIBEL Mendelu auzoa	943 641975
7- GARMENDIA Portuan	943 641136
14- MARTINEZ Kale Nagusia, 17	943 641212
21- ARRATIBEL Mendelu auzoa	943 641975
28- GARMENDIA Portuan	943 641136

Bordari eta Satarka literatur lehiaketaren saribanaketa burutu da

Aurten hogeita hirugarren aldiz ospatu den Bordari eta Satarka Literatur Lehiaketako irabazleak izendatu dira. Abenduaren 17an Udaletxeko Areto Nagusian egin zen sari banaketa. Denetara 60 lan aurkeztu dira, lau kategoria desberdinetan banatuak.

Bordari ipuin lehiaketan, 18 urtetik gorakoentzat den A mailan 11 lan azaldu dira, eta 26 adin nagusitasuna ez dutenentzat. Satarka Lehiaketan, A mailan 13 lan irakurri dituzte epaimahaikideek eta beste 7 B mailan.

SARITUAK

BORDARI A MAILAN (18urtez gorakoak)

1.SARIA: IRATI GOIKOETXEA ASURABARRENA
Lanaren izena: ISPILUAK BI AURPEGI DITUENEAN

2.SARIA: XABIER ALDAI AMIANO
Lanaren izena: EZKUTALEKUETAN

Hondarribiko onenaren saria: AINARA ELIZONDO LIZARRAGA
Lanaren izena: 7,15 AM

BORDARI B MAILAN (18 urtez beherakoak):

1.SARIA eta Hondarribiko onena: MARINA ELOSEGI GARCIA
Lanaren izena: EGAN EGIN ZEZAKETEN.

2.SARIA: LOREA LEKUONA LEGORBURU
Lanaren izena: HIRU

1.SARIA eta Hondarribiko onena: AINARA ELIZONDO
Lanaren izena: ERRETRATUAK. NET

2.SARIA: IRATI GOIKOETXEA ASURABARRENA
Lanaren izena: ISILTASUNARI

SATARKA B MAILAN (18 urtez beherakoak)

1.SARIA eta Hondarribiko onena: UXUE ZABALA
Lanaren izena: HITZAK

2.SARIA: ANA LUPE IRIDOI AMUNARRIZ
Lanaren izena: BIZITZA ETA SENTIMENDUAK

Ipuinen epaimahaia Mayi Iza, Juan Garcia eta Jexux Mari Mendizabalek osatu dute. Olerkiena aldiz, Martin Iturbe, Xabier Aranburu eta Markox Balentziagak.

Epaimahaia, Bordari Lehiaketan Juan Garzia, Jexux Mari Mendizabal eta Mayi Izak osatu dute, eta Satarka Lehiaketan aldiz, Martin Iturbe, Xabier Aranburu, Markox Balentziaga eta Mertxe Mitxelena.



Aurtengo irabazleen irudia

Hemendik aurrera HONDARRIBIA aldizkaria zure etxean **dohainik** jaso nahi baduzu, bete ezazu harpidetza-txartel hau eta bidali edo eraman Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

HARPIDETZA TXARTELA

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Amaitu dira Neguko Jardunaldiak

Euskara Batzordeak antolatuta, ekitaldi ugari antolatu dira lau astez

Amaitu dira beste urte betez azaroa eta abendua bitartean Euskara Batzordeak antolatzen dituen Neguko Jardunaldiak. Hondarribian euskararen erabilpena sustatzeko egiten diren jarduerak dira, haur, gazte eta helduentzat zuzentzen direnak.

Urtero Euskara Batzordeak horretarako egitarau oparo bat prestatzen du, kultur eta kirol izaerako ekitaldiak antolatuz. Aurten, Hondarribia Euskaraz haur eta helduentzako txirrinda martxarekin hasi zen. Azaroaren 26an izan zen, eta urtetik urtera sendotzen ari den martxa bat da, parte hartu zuen haur eta gurasoen kopurua ikusita.

Hortaz gain, Hondarribian izan dira Txan magoa, Artea antzerkia, Jon Maia, eta nola ez, abenduaren 21ean Maltzeta trikitilariaren sendia eta lagunak, omenaldi hungigarria egin bait zitzaion Neguko Jardunaldiari amaiera jarri zion ekitaldian.

Hori gutxi balitz, Bidasoako Ikasleen Euskara Elkartearen Topaketak, Literatur Lehiaketako Saribanaketa, Hondarribia aldizkariaren 20. urteurrena dela eta ale bereziaren argitalpena, eta Euskal Liburu eta Diska Azoka ere. Hurrengo urtean berriz!

Argazkiak: Floren Portu



Txirrinda Martxaren ondoren jaialdi bat antolatu zen



Kattalin Noblia Euskara zinegotzia eta Koro Eraso teknikaria



Kalean Kantuz San Pedro kalean ospatu zen



Haurrentzat jarduera ugari antolatu dira

Jaizkibia erakundearen sorrera ofiziala burutu da

Hondarribiaren izenean Aitor Kerejeta alkateordea izan zen ekitaldian

Urriaren 6an eratu behar zela bazirudien ere, azkenean abenduaren 1ean egin zen Pasaialdea biziberritzeko erakunde arteko elkartearen, Jaizkibia, aurkezpen ofiziala.

Jaizkibia, zazpi udalek osatzen dute alde batetik: Hondarribia, Irun, Pasaia, Lezo, Errenteria, Oiartzun eta Donostiak osatuko dute. Hortaz gain Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Espainiako Gobernua ere izango dira elkartearen zati. Osaketa burutu ondoren, elkarte berriaren estatutuak onartu dituztela eta, jarri beharreko diru kopurua zehaztuko da.

Erakunde berriren helburua, hamar urteko ePasaialdea erabat itxuraldatzea da, eta horretarako hiri eta erakunde desberdinen arteko elkarlana ezinbestekoa izango da.



Erakundearen ordezkari batzuen irudia

Euskal Eurohiriko haurren eguberri parkea zabalik da



Eguberri parkea FICOBA dago

Aurreko urteetan izandako arrakastaren ondorioz, berriz ere FICOBA 8.000 metro karratuko parkearen eskutik eguberria gerturatu nahi da Euskal Herriko haur guztiei.

Jolasen bidez ikastea da FICOBAko eguberriaren lema. Horrexegatik jarduera gehienek heziketa kutsu garrantzitsua izango dute haurrentzat nahiz gurasoentzako.

Jolas-jarduerak eta heziketa-jarduerak adinen arabera sailkatutik egongo dira, lau taldetan:

- . 3 urtetik 5 urtera
- . 6 urtetik 9 urtera
- . 10 urtetik aurrera
- . Gurasoak eta helduak orokorrean

Euskal Eurohiriko Haurren Eguberri Parkea, Bidasoa-Txingudiko Mugaz Gaiandiko Partzuergoa, eta Irun, Hondarribia eta Hendaiko Udalen laguntzari esker burutzen da.

Abenduak 24 eta 31, eta urtarrilak 5, egun bereziak direnez, eguerdiko 3etatik arratsaldeko 6ak arte irekiko da. Abenduaren 21ean, 25ean eta 31n eta urtarrilaren 1ean itxita egongo da.

KARNET ERAKO ARGAZKIRIK BEHAR?

NAN, GIDA BAIMENA, EHIZA, IKASTETXE...

EDOTA LAGUNEI OPARITZEKO

20 ARGAZKI KARNET ERAKOAK

BAKARRIK

3,58.-euro

foto FRANAN

Zuloaga,4
Anbulategiaren parean
HONDARRIBIA

ARRETXE



ERRETERIA

Larzabal 14 • 943 34 01 82

DONOSTIA

Zabaleta 54 • 943 28 65 72

HONDARRIBIA

J. Alonso 7 • 943 64 27 77

Mendelu 17 • 943 64 70 58

Muliateko eremuan etxebizitzak eraikitzeke pauso berria

Abenduaren 13an Udal Areto Nagusian ospatu zen Osoko Bilkuran erabaki bat hartu zen. Babes Ofizialeko 250 etxebizitzak errealitate bihurtzeko, eremuaren jabeen %76rekin adostutako kudeaketa hitzarmenari baietza eman zitzaion. Akordio honetan, aurtengo ekainaren 30eko Lurzoruaren Lege berriak dioenaren arabera, Udalak eta Muliateko lur jabeek eremuaren plan partzialean agertzen den adostasunezko kudeaketa sistema gauzatu eta zehaztu dute.

Ondorioz, Udalak Babes Ofizialeko 250 Etxebizitza egiteko lursaila jasoko du, hirigintza kargetatik libre, lurren jabeek ordainduko dituztelako lan hauek. Etxebizitza guzti hauetatik, 195 salmentako erregimenean eraikiko ditu Udalak berak.

Bestalde, hiriak Eusko Jaurlaritzaren esku utziko du jasotako lurren zati bat, honek alokairu sozialeko erregimenean 55 etxebizitza eraiki eta kudea ditzan. Gainera, beste 18 etxebizitza libreraren eskubideak ere Udaletxearen esku geratuko dira.

Akordioaren arabera, Muliateko lur jabeek 150 etxebizitza eraiki ahal izango dituzte merkatu librean saltzeko, urbanizazioaren kostua beren gain hartu ondoren.

Muliateko kudeaketaren hitzarmenak EAJ, EA, PSE-EE eta EBren aldeko botoak jaso zituen. Brankak ezezkoa eman zion akordioari.



Etxebizitzak inguru honetan eraikiko dira

2007ko Inauterietarako kartel lehiaketa deitu du Udalak



Iazko Inauterien irudia

Hondarribiko Udalako Kultura Sailak, urtero egin ohi duen bezala 2007ko Inauterietako kartel lehiaketa antolatu du. Lehiaketan edozein pertsonak parte hartu ahal izango du eta erabiliko duten teknika librea izango da: mar-goia, marrazkia, collage, etab. Lanek derrigorrez jatorrizkoak izan beharko dute eta neurria 70 x 50 zmtakoa eta bertikala izan beharko da.

Karteletan derrigorrez ondoko lema azalduko da: "Hondarribia-Inauterietak 2007". Lanak Udal Liburutegian - Zuloaga Etxean - entregatuko dira urtarrilaren 18an eta 19an, eguerdiko 12etatik 13etara eta arratsaldeko 4etatik 8etara.

Lanak egilearen sinadurarik gabe entregatuko dira, bakoitzaren atzealdean lema bat idatzita, horrekin batera kartazal itxi bat aurkeztuko da, kanpoaldean lanaren lema bera adieraziz. Kartazalaren barrualdean egilearen izena eta bi abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia zehaztuko dira.

Sailkatutako lehen kartelari 450,00 €ko saria emango zaio, eta bera izango da 2007ko Inauterietak iragartzeko erabiliko dena. Lanak jendaurrean jarriko dira otsailaren 2tik 18a bitarte, Zuloaga Etxean.



**BAR
HONDARRIBI**

**AUKERA HAUNDIA BANDERILA
ETA KAXUELETAN**

San Pedro, 31
Tel: 943 642705

20280 HONDARRIBIA



San Pedro, 27 20280 Hondarribia
Tel.: 943 642 102

Santa Engraziako ermita birgaitzeko 750.000 euro bideratu dira



Inguruko bidea ere birgaituko da

A benduaren 13an ospatu zen azken Udal Osoko Bilkuran, Santa Engraziako ermita konpontzeko Parrokiari 70.526'12 euroko laguntza ematea erabaki zen. Laguntza honekin, ermitak birgaitze lanak hasiko ditu laster.

1556. urtean eraikia, aldare nagusi bat dauka, eta alboetan San Jose eta San Antonioren estatua bana. 1642. urtean, Pakearen Kristo Santua ipini zen kaperan, bizilagunek ordaindu zutelarik. 1834ko Lehen Karlistadetan desegin zuten eta hamar urte geroago berreraiki zen 1.905 erreal eta 17 marabedi ordaindu zirelarik.

Tradizioak dioenez, Ermita honetara amek bere semeak eramaten zituzten hauek negar asko egiten zutenean gauez, Ebangelioak entzun zitzen. Bizilagunek Santa Engraziako Amabirjiñari dioten debozioa oso handia da.



Santa Engraziako ermitak datozen hilabeteetan itxura aldatuko du

Horren adibidea da azken 100 urteetan ermita honetan egindako lan guztiak bere gain hartu dituztela.

Gaur egun ermitak daukan egiturak berehalako birgaitze proiektua eskatzen du, bai basilizan bertan, baita inguruan ere.

Santa Engraziako ermitaren birgaitze lanak estalki berri bat jartzea, kanpo zein barneko harri-horma hauek izango dira ermitaren inguruan dagoen lur-zorua konpontzea.

JATETXEA

LA HERMANDAD DE PESCADORES

Calle Zuloaga, 12 • HONDARRIBIA • Tel. 943 64 27 38

Foto Sistema

ARGAZKIAK

ORDU BETEAN

Itsasargi 3
Tel. 943 64 57 65
20280 HONDARRIBIA

Herriko ikastetxeetan 480.000 euro inbertitu dira

Gaur egun Hondarribian Lehen eta Bigarren Hezkuntzan 2.313 ikasle daude

Egun gutxi geratzen dira 2006. urtea amaitzeko, hezkuntza alorrean zenbait berri sortu dituen urtea, hala nola, Biteri ikastetxean egindako birgaitze lanak. Horien berri emango dugu jarraian, baita Hondarribian Lehen eta Bigarren Hezkuntzan dauden ikasle-en datuak ere. Hain zuzen ere, 2.313 dira, 1175 ek ikastetxe publikoetan ikasten dute eta 1138k ordea pribatuetan, hau da, Ama Guadalupekoa eta San Jose Ikastetxean.

2006. urtean Biteri ikastetxean 218.000 euro inbertitu dira. Jangela berri bat eraiki da, ikastetxetik hurbil, Jostaldi pilotalekuaren ondoan. Orotara, bere kostua 29.749,75 eurokoa izan da. Hortaz gain, kalderak dauden aretoa birgaitu egin da 53.028,24 euro ordaindu direlarik, 76.864,44 lur zoruaren egokitzea, urak jasotzeko sisteman eta ikastetxean egin diren beste zenbait hobekuntzatan.

Hori gutxi balitz, 32.153,68 euro bideratu dira kanpoko horma birgaitzeko eta ikastetxera sartzeko atea ipintzeko, 11.613,46 euroa itxitura metalikoa jartzeko kanpo perimetroan, 9.952,16 instalakuntza elektrikoa egokitu ahal izateko eta, eta azkenik, 4.650,80 euro jardinarekin loturiko lanak burutzeko.

2007 urterako, aurten burututako lan hauei jarraipena emango zaie, nahiz eta oraindik ez den bere exekuzioa onartu, 2007ko aurrekontuak onartu egin behar dira eta horretarako, beste zenbait lanen artean, pilotalekua eta gimnasioko aldageletara sartzeko horma margotu egingo dira, arketak eta urak jasotzeko mekanismoak hobetuko dira, beheko solairuko leiho-ertzak egokituko direlarik ere. Azkenik, kanpoko patioako espaloia eta lur-zorua egokituko dira.



Biteri ikastetxean birgaitze lan ugari egin dira

Azkenik, esan Udalak 480.000 euro inbertitu dituela publikoak diren hezkuntza zentruetan. Jarraian zehazten dugun bezala burutu dira inbertsio hauek:

Biteri Eskola: 284.600,00 €
Puntal Eskola: 28.030,08 €
Satarka: 66.411,22 €
Soroeta: 26.088,70 €
Talaia: 74.561,66 €



**JAVIER
OPTIKO**

OPTIKA ETA OPTOMETRIAN DIPLOMATUA
OPTOMETRIA KLINIKOAN MASTERDUNA
KONTAKTUKO LENTEAK

San Pedro, 6
Tel. eta Faxe: 943 64 37 75
20280 HONDARRIBIA



ENARA

INMOBILIARIETAN ADITUAK

www.inmobiliariaenara.com



VITALICIO
ASEGUROAK
Rgs. Zbk. 3625

San Pedro 1
20280 HONDARRIBIA
Serapio Mugika, 2
20302 IRUN

Tel. 943 64 39 72
Tel. y Fax 943 64 54 38
Tel. y Fax 943 00 46 28

Udala Ortzibia elkartean sartu da

Elkartearen estatutoetan ez da pistaren luzatzearen aipamenik egiten



Hegazki bat aireportuan maniobra bat egiten

Hondarribiko Udalak sortu berri den Ortzibia elkartearen kide da. Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Gipuzkoako Merkataritza Ganberak eta Donostia-ko, Irungo eta Hondarribiko udalek urtarileko lehen hamabostaldian sortuko duten elkarte honek aireportua sustatzeko helburua dauka, hegazkin konpainia berriak erakarri eta jada Hondarribian lan egiten dutenak sendotu nahi dituelarik.

Abenduaren 13ko Osoko Bilkurak aho batez onartu egin zuen Udala elkarte berri honen kide izatea. Aitor Kerejetak lehen Alkateordeak esan zuenez, "aireportuaren dinamismoa handitzeko eman behar diren pausuak bultzatzeko sortzen den elkarte da, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren interes ekonomikoak bultzatuz. Argi utzi nahi dut pistaren luzatzeak ez duela zerikusirik elkartearen sorrerarekin".

Elkartearen capital soziala 110.000 eurokoa izango da. Hondarribia, Irun eta Donostiako Udalek %5 jarriko dute, Gipuzkoako Merkataritza Ganberak %15, eta Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak aldiz, %35 bakoitzak.

Eraikin berriaren proiektuan aldaketak

A benduaren 13ko Osoko Bilkuran, Udaltzazak Panpi-not kalean eraikitzen ari den udal eraikin berriaren proiektuan aldaketak egitea erabaki zuen, aurrekontua hasierako 1,07 milioi eurotik 1,84 milioiraino igoaz.

Akordioa EAJ, EA, PSE-EE eta EBren aldeko botoekin atera zen aurrera. Brankak ezezkoa eman zion proiektuaren aldaketari, "%80ko aurrekontuaren igoera gehiegizkoa" baita talde honen ustez.

Hobekuntza nagusia klimatizazio eta berogailu sistema egokiagoa jartzea izan da. Honek, eraikin berriaren estalkian eta egituran, kanpoaldeko arotzerian, sistema elektrikoan eta langileek izango dituzten lanpostuetan aldaketak egin beharra ekarri du eta baita prezioaren igoera ere.

Aitor Kerejetaren esanetan, "aldaketa hauekin, udaletxeko langileek erosoago lan egin ahal izango dute eta eraikin hobea izango dugu". Eraikin berri hau udaletxearen atzealdean dago kokatuta.



2007. urte erdialdera amaitua egongo da eraikin berria

Era guztietako kortinak, era guztietako eguzki-oihalak

Amute 8 - behea C. Telf: 943 667 003. Hondarribia

**PINTXO, RAZIO ETA OGITARTEKOETAN
ESPEZIALIZATUA**

Bar Ignacio

**SAN PEDRO, 20 20280 HONDARRIBIA
TEL. 943 643 557**

Bidasaldeko Ikasleen Euskara Elkartearen Topaketak burutu dira

Irun eta Hondarribiko ikastetxeetako euskara elkarteetako enkitaldia ospatu zen pasatako abenduaren 13an Zuloaga Etxean, Berritzegunearen laguntzarekin. Topaketa honetan, Kattalin Noblia Udal Euskara Zinegotziaz gain, zazpi ikastetxetako 40 bat ikasle eta 12 bat irakasle, Irun eta Hondarribiko Euskara Zerbitzuetako teknikariek parte hartu zuten. Saioa aurkezten eta gidatzen Iban Garate, aktore eta telebistako aurkezle ezaguna izan zen.

Funtsean, ekitaldia Irun eta Hondarribiko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako ikasleen Euskara Elkartearen topaketa bat izan zen. Gure eskualdeko ikastetxeetan ikasleen Euskara Elkarteak lanean ari dira. Batzuk sortu berriak dira, beste batzuek berriz hainbat urtetako ibilbidea egin dute. Aurten elkarte horiek sendotzeko asmotan gabiltza (hobeto egituratzeko, eginkizunak eta ardurak hobeto zehazteko, funtzionamendua egonkortzeko...) eta gogo horrekin antolatu dugu elkartearen topaketa hau.

Helburuak

- Ikastetxean, Euskara Elkartearen, egiten ari direna elkarri aurkezteko eta horretaz hitz egiteko.
- Elkarteetako kideak elkar ezagutzeko
- Eta elkarrekin ondo pasatzeko

Eskualdeko Bigarren Hezkuntzako 9 ikastetxe ari dira beren Hizkuntza Normalkuntzarako Proiektua (HNP) garatzen. Proiektu horren barnean ikasleen Euskara Elkarteak ari dira sustatzen. Proiektu hori garatzeko ikastetxeek Normalkuntza Batzordea eta Hizkuntza Normalkuntzarako Arduradun Teknikoa (HNAT) dituzte.

HNAT hauek aldiro elkartzen dira eskualdeko HN Minte-



Topaketak Zuloaga Etxean egin ziren

gian (Irungo Berritzegunean, Berritzeguneko HN aholkulariak koordinatuta), esperientziak trukatzeko, ekimenak elkarrekin antolatzeko, prestakuntzan sakontzeko...

Mintegi honetan sortu zen topaketa antolatzeko ideia. Ideia Hondarribiko eta Irungo Udaletako Euskara Zerbitzuei aurkeztu genien, eta denon artean (Ikastetxeetako HN arduradunak, Berritzeguneko HN aholkularia eta Udaletako Euskara Zerbitzuetakoak) ari gara topaketa hau antolatzen.

Informazio gehiago nahi duenak, helbide honetan aurkitu dezake: <http://www.blogari.net/BagaBiltza>



Kattalin Noblia eta Iban Garate aktorea

EXPERT GEURIA

SUKALDEKO ALTZARIAK
Tel. 943 64 07 14

ETXETRESNAK
Tel. 943 64 33 86

San Pedro, 3 • San Pedro, 4
20280 HONDARRIBIA

HONDARRIBIKO GIMNASIOA

AEROBIC, SPININ, FUNKY, HIP-HOP,
BODY BULDING, BODY COMBAT,
MUSKULAZIOA, MANTENIMENDUA,
MASAJEAK, SAUNA, PIRAGUEN ALOKAI-
RUA ETA GORDELEKUA...

"ZURE GIMNASIOA HERRIAN BERTAN"!!!

Hondarribia Arraun Elkartea • Tel. 943 64 01 61 • 20280 HONDARRIBIA

Goxoki Elkarte

Iñaki Jauregi



Elkaratearen izena zeri zor zaion ez dakigu, baina izanak aski gozoa behar du halako izen ezia hartzeko. Hilabete honetako elkarrizketaren atala Goxoki elkartearen eskutik dator edo, gauza bera dena, bertako ordezkari den Iñaki Jauregiaren ahotik. Kontuak kontu, 50 urte pasatxo dituen elkarte honen inguruko gorabeheren berri eman digu Iñakik eta gehiegi luzatu gabe, hona jarraian Goxokiri buruz bertako lehendakariak azaldutakoak.

Nondik abiatu zen Goxoki? Nolatan sortu zen?

Goxoki elkarte gaur egun elkarte gastronomikotzat hartzen da, baina sortu zenean, gastronomiari baino gehiago arraunari lotua zegoen; Goxoki sortu zen garaian arraun elkarte gisa sortu zen. Sorrera, berriz, elkarte gehientsuenen tankerakoa izan zen; lagun talde bat bildu eta hortik elkarrekin egoteko elkartearen ideia jaio zen. Goxokiren hazia 1947koa da, baina dagoeneko bazkide sortzailerik ez da geratzen; nire aitak, osabak, hainbat jende ezagunek... ekin zioten elkarte sortzeko asmoari, nahiz eta gaur egun elkartearen sortzailerik gure artean ez den geratzen.

Elkarte handia al da Goxoki?

Gure elkarte Hondarribiko beste edozein elkarte bezalakoa da, baina hainbat elkarerekin alderatuz gero, ezin esan bazkide kopuruari dagokionez handiegia denik (nahiz eta 90 bazkide dauzkagun). Urtero aldatzen den eta 15 lagunek osatzen duten zuzendaritza-batzordea dugu, eta zozketa bidez egiten dugu urteroko aldaketa. Horrela, urtez urte talde desberdin bati dagokio elkarte zuzentzeko ardura.

Elkarteko kide izan nahi duen edonork zer egin behar du bertan sartzeko?

Elkartean sartzeko ez dago baldintza jakinik. Beste bi bazkideren bermea izatearekin nahikoa da kide izateko. Bazkideei dagokienez, gazteak, adinekoak...denetarik dago hemen. Emakumezko bazkiderik, ordea, ez dugu; afaltzera eta otorduak egitera etortzen dira, baina bazkide gisa ez.

Goxoki arraun elkarte gisa sortu zela aipatu duzu, baina egun elkarte gastronomikoa dela. Horren arabera, zeintzuk dira antolatzen dituzuen ekintzak? Kirolari lotutakoak edo otorduekin zerikusia dutenak?

Bere garaian arraunari lotutako ekintzak antolatu izan ziren, hondartza-futbola ere bai (urteren batean hondartzako txapelketaren bat ere egin zen), baina gerora kirol-ekintzak baino gehiago fjitu-lehiaketak antolatu izan ditugu (arrantzaleen jaki tipikoak), nahiz eta bi urte pasa diren azken lehiaketa antolatu genuenetik. Horretaz gain, Hondarribian antolatzen diren makina bat ekitalditan parte hartzen duen korua ere badugu. Ekintzak antolatzen, berriz, normalean jende bera aritzen da, kontuan hartu beharrekoa ere bai baita elkarte txikia osatzen dugula.



Ainara Elizondo



Goxoki Elkarteak 1997an mende erdia bete zuen. Orduan atera zen bere bazkideen irudi hau

Elkarte txikia izanik, ez da erraza izango aurrera egi-tea. Laguntzarik jasotzen al duzue?

Ez, laguntzarik ez dugu jasotzen, eta ba al dakizu zer-gatik? Bada, gureztat laguntza jasotzea sekulako buruhaustea delako. Dirulaguntzaren bat jasotzeko fak-turak erakutsi behar dira eta ekintzak guk antolatu eta fakturatuz gero, ze faktura erakutsiko dugu? Haragiaren faktura frijitu-lehiaketa antolatzean? Ez du merezi. Loka-lari dagokionez, lokala badugu, baina ez da gurea eta alokairua kontsumitzeekin ateratzen dugunarekin ordaintzen dugu.

Zuen artean ondo moldatzen al zarete? Gerora begi-ra ba al duzue proiekturik esku artean?

Aurrera begira oraingoz ez dugu inolako proiekturik eta gure arteko giroaz, berriz, ezin gauza txarrik esan, elka-rrekin ondo konpontzen baikara. Zuzenbide-batzordean lana denon artean banatzen dugu eta giro ona dago. Batzordea osatzen dugun 15 lagunaren artean banatzen dugu lana, nahiz eta batzuek besteek baino lan gehiago egiten duten leku guztietan gertatzen den bezala.

BAR · RESTAURANTE LARRA

C/ DAMARRI, 4
20280 HONDARRIBIA
TEL.: 943 64 27 04



Pintxos, Bocadillos, Platos Combinados,
Menús del Día, Menús a la Carta.



GESTIÓN:

CONTABLE,
FISCAL,
LABORAL
* SEGUROS

GESTIOA:

* KONTUHARTZAILEATZA, FISKALA
ETA LANAREKIN LOTUTAKOA
* ASEGUROAK

Olentzero



Martin Iturbe

Gure artean besoak zabal dituen jaialdirik baldin bada, eguberria da. Bazter guztiak bere pozoihuzko albiste atseginez gainezkatzen bait ditu. Urtegarai jakin batean kokatzen dugu eguberri-jaiak, eta kristau-kutsuz argitua datorkigu.

Esan beharra da hala ere, mundu zabaleko kultur eta ohituren zelaiean sendotzen diren jaiak direla, guk eguberri- aipatzen eta ospatzen ditugun hauek. Neguko eguzki-itzulian kokatzen da, hain zuzen; gauak lucen eta egunak laburren diren unean. Hementxe hasten da eguna luzatzen, hau da, argiak indar zabalagoa hartzen du eguzki-itzuli honen bertsoetatik.

Argiak, suak eta urak esanahi sinboliko aberatsa dute mila herritako ohituretan. Denboraren oartzuna ere garbi entzuten da, urte baten amaiera eta beste baten sorrera zaigun garai honetan. Jaialdi hauek ezaugarri ugari eta, sendo sustraituak dituzte dituzte herrialde guztietan.

Gaurko nere begirada, begirada mugatua nolanahi ere, Olentzerorengana dihoa.

Olentzerori buruz irizpide ugari aurkitzen ditugu gure artean. Batzurentzat pertsonaia farregarria da, ezjakiña eta ez dakit nik zenbat gauza. Askorentzat irudi atsegiña gertatzen da, eta hainbesteraíño sartu da Eguberrietako zelaiean, hura gabe norbait garrantzitsua falta-ko litzaiguke.

Hor ditugu gure neska-mutikoak, irudi maitagarria prestatzen ilusioz jardín ondoren, Gabon egunean bere irudia bizkarrean hartuta, atez-ate berri onaren

albisteak zabaltzen.

Baina nondik dator Olentzero izena?

Azalpen bat baino gehiago daude izen honi buruz. Apaizek, egunero egiten dugun goizeko otoitzean, berezitasun bat aurkitzen dugu, abenduaren 17tik 23ra. Goizeko Gorespen-Otoitza o hizkiz hasten dugu. Erdi aroa ezkerro, abenduaren 17tik 23ra zazpi antífona abesten dira. Hona hemen:

- O Sapiencia = Betiereko zuhurtzia
- O Adonai = Mundu guztiko jaunen jaun
- O Radix Jesse = Jese-Leinuko semea
- O Clavis David = Errege-makil eta giltza
- O Oriens = Goiko Indarren eguzkia
- O Rex Gentium = Arrotz herrien errege
- O Emmanuel = Gurekin zauden Jainkoa

Hortik O-ren Z aro konposaketa, eta gero Olentzero. Frantzian abendu aldiko antífonei "Les O de Noel" deitzen zieten eta hortik sartuko zen Erdi Aroko "Les Oleries" izena, hitzez hitz O-ren aroa edo garaia.

Dena den, guzti honek Egunerriaren albisteak zabaltzen du, Jainko gizon eginaren misterioa bait dago oinarrian. Fededunok itxaropen nagusia

jartzen badugu aitormen honetan, onartzen dugu, pozez onartu ere, gizadiko zatitxo bat bakarrik ez zuela argitu Belengo gertakizunak, guztiengana iristen dela baizik eguzkiaren beroa eta argia.

Kanta dezagun, beraz denok: Olentzero joan zaigu, Aintza zeruan...





Gabonetako argiterian ahal den energia gehien aurrezteko bilatu du Udalak

Hondarribiak **kontsumo baxuko argiak** estreinatuko ditu Gabonetan

Udalak 60.000 euroko inbertsioa burutu du Gabonetan hiria alaitzeko

Gero eta gutxiago geratzen da Gabonetako egunak iristeko. Olentzero, Errege Magoak, gabon-kantak eta opariak jai egun hauetako ezinbesteko alorrak dira, baina agian ez dira gutxiago izango Gabonetako argiak. Argiteriak ematen duen alaitasuna eta izaera berezia ezinbesteko faktoreak dira.

Udalak esfortzu berezia egin du aurten. Osoko Bilkurak pasatako urriaren 19an ahobatez onartu zuen argiteria berriaren erosketa, eta azaroko azken honetan Udaletxeko langileak hiriko toki desberdinetan argiak kokatzen ari dira.

Hondarribiko Gabonetako argiteriaren ezaugarri nagusia energia aldetik kontsumo egokia egitea da. Zerbitzuen Batzordetik energia kontsumoa kontrolatzea izan da asmoa, eta horretarako kontsumo baxuko LED argiak erabiliko dira. Ondorioz, piztuko diren bost asteetan orain arte erabiltzen ziren argiekin parekatuta 13.485 kw/o-ko aurrezte bat burutuko da.

Argien iraupena 60 aldiz handiagoa da

Aurten erabiliko diren argi berri hauen iraupena aurrekoena baino 60 aldiz handiagoa da, beraz, aldatzearen kostua murriztu egiten da. Argi hauen funtzionamenduak 12 eta 24 voltio bitarteko elikamendua eskatzen du tentsio aldetik, edozer gertatzen bada segurtasun arazorik ez izateko.

Gabonetako argiteria aukeratzeko orduan, udal zerbitzu desberdinek partu hartu dute; alorreko erantzule politikoak, eta baita alderdi guztietako ordezkari politikoak ere, Osoko Bilkuran aho batez onartu zen.

Esan bezala, Udalak 60.000 euro inbertituko ditu material honen erosketan, muntaian, mantenimenduan eta Gabonak igaro ondoren jasoketan ere. Amaitzeko, esan ondorengo puntuetan jarri direla argiak: Iturriberri-San Nikolas, Amute, Amutalde, Mendelu, Correos, eta jakina, San Pedro kalea eta Kale Nagusian.

2006, AKABO BE



Alde Zaharrean putzu bat aurkitu zen urtarrelean



Bi haur parke berri ireki dira aurtan



Bake Epaitegiak azpiegitura

2006. urtea dela eta amaitzen ari da. Hamabi hilabete hauetan Hondarribian gertatu diren ekitaldi, proiektu eta gertakariei errepaso txiki bat emateko parada ezin hobea oraingoa. Ehundaka izan dira, baina bi orritan ezin dena sartu, hori, urtean gertatu dena ikusita, garrantzitsuenak edota esanguratsuenak biltzen saiatu gara, nahiz eta askorentzat beste zenbait gertakarik beharko lukete agertu orrialde hauetan, baina, dena ezin sartu!

Kultura, kirola, hirigintza, aisialdia, turismoa... denetatik izan dugu aurtan Hondarribia. Alde Zaharrean adibidez, kultur aldetik, Ubilla eta Eguzki kaleen artean putzu bat aurkitu zen urtarrelean. Aurkikuntza interesgarria eta aberatsa, baina horrek ere badu bere alde txarra, inguruan egi-

ten hasi ziren etxebizitzaren eraikuntza lanak bertan behera geratu direlako aurkikuntzek aurrera jarraitzen duten bitartean.

Udalak haur parkeen irekierekin jarraitu egin du. Otsailean Hondartza inguruan bat ireki zuen eta apirilean aldiz Sokolan. Eguraldi ona egiten duen egunetan, leporaino betetzen dira, batez ere hondartzakoa. Jaiotzen tasak behera egin omen du Euskal Herrian, baina badirudi Hondarribian joera ez dela berdina!

Martxoan Kale Nagusian Bake Epaitegiaren azpiegitura berriak ireki ziren. Martin Iturbe apaiza eta Borja Jauregi alkatea buru, zinegotzi gehienak izan ziren irekiera ekital-



Erdi Aroko hirien sarean sartu da Hondarribia



Kontraminen galeria ireki zen maiatzan



Elena Arbelaizek eraman du Kutxa

ESTE URTE BAT!



a berriak ditu



Martxoan ohiko zuhaitz landaketa burutu zen



Saihesbidearen irekiera eguneko irudia

dian, hiritarrei ahalik eta zerbitzu onena eskaintzea helburua duen bulegoa .

Udaberri aldera jadanik tradizio bat bilakatu den zuhaitz landaketa burutu zen Guadalupe inguruan. Eguraldi ona lagun, ehundaka haur, bere anaia, guraso eta aiton-amonak bildu ziren ohitura eder honi eusteko. Egun batzuk geroago, haur hauek heldu bilakatzen direnean gustura erabiliko duten errepide baten hastapen lanen hasiera burutu zen. Hondarribiko bigarren saihesbidea, Txiplautik hasi eta Guadalupeko igoeraren hasieran amaituko den errepidea apirilean hasi ziren eraikitzen, eta orain, abenduaren azken egunetan, ia amaituta dagoela ikus dezakegu. Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Ahaldun Nagusia bertan izan zen.

Maiatzean, aldiz, Hondarribia Erdi Aroko hiri harresituen sarean sartu zen, turismo aldetik onura ekarriko duen ideia. Uda garaian, ohiko tradizioak eustez gain, Elena Arbelai- zek aurten eraman duen Kutxarekin, Ama Guadalupekoak hiritarrak behin eta berriz poztuarazi zituen. Hau ere tradizio bihurtzen ari da, eta seinale ona da hori.

Hortik aurrera, uda amaitzen denean, herria asko lasaitzen da, eta jende ugari ongi eskertzen du. Hala ere, Hondarribiak bere martxa jarraitzen du, eta horren seinale, lau mendeko bizitza zuen Torre baserria bota egin behar izan dela arestian aipatutako saihesbide berriaren obrak direla eta.



aurten Urte borobila izan da Arraun Elkartearentzat



Torrea baserria betirako desagertu da saihesbidearen lanak direla eta



Torre Baserria Akartegi

Arma Plazako Interpretazio Gunearen zentrua eraikitzen hasi da

■ Azaroaren amaieran hasi ziren Arma Plazako 9. zenbakian hiriko Interpretazio Gunearen Zentruaren eraikitze lanak" adierazi zuen Aitor Kerejetak alkateordeak Udaletxeko Areto Nagusian egindako prentsaurrekoan.

Proiektua ABR Arquitectos enpresak burutu du, lehiaketa publiko baten ondoren hautatua izan zelarik. Lanak ordea Fonorte enpresak egingo ditu eta 982.000 euroko aurrekontua izango du, hamar hilabete eta erdiko epea izango duelarik horretarako.

Aitor Kerejetak alkateordeak esan zuenez, "hasera batean udako hilabeteak iritsi aurretik hastea pentsatu genuen baina tokia eta bere eragina aztertuta uda ostean egitea erabaki genuen. Ez da ahaztu behar 100 metroko perimetroa itxi egingo dela eraikinaren atearen aurrez aurre. Obrako gailuak Paradorearen alde batean kokatuko dira, iparraldera begira. Materialak igo eta jaisteko Javier Ugarte kalea erabiliko da eta gero Ipar kalea erabiliko da. Hori dela eta, San Gabriel egoitzaren kalea apur bat aldatuko da".

Hau dena kontuan izanda, Kerejetak "Alde Zaharreko eta gehienbat Arma Plazako bizilagunei lasaitasuna eskatu zien. Obrak beti dira desatseginak, eta are gehiago hau bezalako inguru batean bizi direnentzat. Hala ere, merezi duela uste dugu".



Barnean itxura hau izango du Interpretazio Guneak

Eraikin berriak hiriaren aintzina, egungo egoera eta ondorena aztertzeko aukera emango digu. Horretarako teknologia berriak erabiliko dira, erabiltzaileak bere gustora maneiatu ditzan tresnak.

Urtero inguru honetan ospatzen den Jaiotza Bizidunari dagokionez, aurten Gipuzkoa plazan burutuko dela amaitu zuen Kerejetak.



Historia ezagutu eta hausnarketa egiteko asmoa duen zentroa da, horregatik espazio ireki eta zabalak eraikiko dira

Arraun Elkarteak urtean zehar lortutako banderak bedeinkatu zituen



Neguko hilabeteetan, arraunak atsedean hartzen duenean, ez horrela arraunlariak, Hondarribian banderen bedeinkapenari ekiten zaio



Goian, Martin Iturbe eta Damaso Uranga banderak bedeinkatzen. Ezkerrean, Osertz Aldai eta Eñaut Labaien TKE Ligako sariarekin



Leporaino betetako Kale Nagusian, eta Abiyuan fanfarrearen atzetik, arraunlariak bedeinkatzeko prest zeuden banderakin. Eurekin batera, Arraun Elkarteak ordezkariak eta Udal ordezkariak, zinegotzi eta Alkatearekin. Ekitaldia amaituta, Ardora jatetxean ia 300 lagun bildu zituen bazkaria ospatu zen.

Argazkiak: Fernando de la Hera



**eukeni
optika**

niretzat zuretzat guztiontzat

San Pedro 57 • 20280 Hondarribia
943 643 805

**Focus
DAILIES™**

Ikusmen egokitze-
mota guztietarako



Ikusmenaz goza ezazu



NI
nire
betaurrekoak nire lentillak
Focus DAILIES



**CIBA
Vision**
© 2006 Ciba Vision Ltd.

Hondarribia Pio Barojaren begietatik



Koldo Ortega

1953an idatzitako liburu batean deskribapen eder bat egiten du


2006. urte honetan mende erdia betetzen da Pio Baroja idazlea hil zenetik. Urteurren hori gogoan, Irungo Pio Baroja institutuak eta Euskal Herriko Unibertsitateko Limes bildumak Presencias de Pío Baroja-pio Baroja gogoan izeneko egitasmoa eratu dute. Bertan, jarduera ugari antolatu dira, hitzaldi, erakusketa, irakurketa, baita estropadak ere. Baina ez da hau orain jorratuko dugun gaia.

Guztiok dakigu zer nolako lotura izan zuen Pio Barojak Bidasoa ibaiarekin. Alde batetik Berarekin, baina baita Irun eta Hondarribiarekin ere. Irungo Udalak duela aste gutxi eskultura bat ipini zuen Zabaltza plazan Barojaren omenez.

Eta Hondarribiarekin zer? Zer dakigu Pio Baroja eta Hondarribiari buruz? 1953. urtean "El País Vasco" (Ediciones Destino, Bartzelona) liburua idatzi zuen. Bertan, Barojak sarreran dionez, Euskal Herriari buruzko liburu bat idazteko agindua eman zitzaion, berandu agian, gazteagoa zenean herriz-herriz ibiltzen baitzen eta azken urteetan "sedentario" bilakatu zen.



Parrokitik ateratako irudia



Liburuak bost zati ditu. Lehenengoan Araba, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroatik ibilbide bat egiten du; bigarrenean aldiz, Gipuzkoa eta Nafarroan zentratzen da; hirugarrenean, Ipar Euskal Herria aztertzen du; laugarrenean, arrantzale, musikari, poeta eta artistak ekartzen ditu gogora, eta azken atalean, superstizio eta kondairak aipatzen ditu.

Bigarren atalean, 248. orrialdetik 258 Bidasoa bailaran jarriko ditu bere begiak. Hondarribia aipatzerakoan, zera dio: "(...) *al pie del monte Jaizquibel, hacia la desembocadura del Bidasoa, está Fuenterrabía, ciudad histórica, con un gran escudo en su puerta de entrada de la muralla. Tiene vías estrechas, apretadas, con el sombrío castillo de Carlos V. (...) aparece como una pared de piedra lisa y alta con muy pocas ventanas. La ciudad es hoy una mezcla de arcaica y moderna. Tiene palacios antiguos en la calle Mayor y en la del Obispo y una calle llamada de Pampinot, que parece de una antigua ciudad flamenca por sus edificio, y junto a la playa, muchos hoteles modernos. En el extremo del cabo Higuer está el Santuario de la Virgen de Guadalupe.*

Aurrerago, San Telmoko gazteluari buruzko deskribapen bat burutuko du ere.



Industria tresneria
Elektrizitatea
Giltzen kopiak
Torlojugintza inoxidablea

MARINEL

Burdindegia

Beñat Etxepare 12 / Txiplao 14
Tel. 943 64 17 88
20280 HONDARRIBIA

BAR ETXEBERRIA



Alde Zaharrean

Kale Nagusia, 27 - HONDARRIBIA

Udalak Agenda 21en kontsumo arduratsuari buruzko kanpaina burutu du

Hondarribiko Udala 2004 urtearen amaieran, Udaltalde 21 Txingudi sortzeko hitzarmena sinatu zuenean, Hondarribian Tokiko Agenda 21 ezartzeko prozesuan murgildu zen. Ordutik hona, herriko errealitatea islatzen duen dokumentua eratzen jardun du, Hondarribiko diagnosia hain zuzen ere.

Eusko Autonomia Erkidegoko beste udalerrietan egin den bezala, herriko diagnosiak garapen iraunkorrari lotutako arlo ezberdinak aztertzen ditu (errealitate ekonomikoa, gizarte mailakoa eta ingurumenaren egoera) eta 2007. urtean lantzen hasiko garen I. Ekintza Plana egiten haste-

ko oinarria ere izango da aipatu dudan dokumentua. Ekin-tza Planaren bidez, Hondarribia iraunkortasunaren bidean lan egiteko helburuak, programak eta ekintza zehatzak zehaztuko dira.

Une honetan, Hondarribiko diagnosia zein diagnosiaren laburpena euskarara itzultzen ari gara eta Udaletxeko talde politikoetako ordezkariak dokumentu horri beren ekarpenak egiteko aukera utzi diogu, azkenik, Udaletxeko plenoan onartzeko aurkeztuko dugularik (otsailean seguruenik). Pauso hori emanda, Hondarribiko Herriarren Foroa sortu-ko dugu, I. Ekintza Plana sortzen hasteko.

Kontsumo arduratsuari buruzko kanpaina:

Orain, lehengo urteko abenduan egin genuen moduan, Gabonak datozela aprobeztatzeko, herritarrek sentsibilizatzeko kanpaina bat jarri dugu martxan Hondarribiko eta Irungo Udalek, Udaltalde 21en baitan, kontsumo iraunkor edo arduratsuaren inguruan.

Horretarako, foileto batzuk prestatu ditugu. Bertan, herri bakoitzeko Agenda 21en prozesuei buruzko informazioa non kontsulta daitekeen aipatzeaz gain, Gabonetarako aholku baliagarriak ematen ditugu kontsumo iraunkorren inguruan eta galdetegi bat barneratu dugu, bakoitzak bere ohiturak jasagarriak diren ala ez neur dezan. Foiletoak kalean banatzen hasiko gara, abenduaren 21etik urtarrilaren 5era (700 bat ale kalean banatuko dira, eta 800 ale udal eraikinetan eskuragarri egongo dira), eta horiekin batera, eguneroko erosketak egiteko balio duten ehunezko poltsak ere banatuko ditugu (700 ale). Poltsa hauen bidez eguneroko erosketak egiteko garaian plastikozko poltsak ez erabiltzea edo gutxitzea bultzatu nahi dugu.



Era berean, lehengo urtean egin genuen moduan, San Tomas egunerako, plastiko gogorrez egindako edalontzi berdeak banatuko dira "txozna"n (1.800 guztira), helburu berdinarekin; behin erabili eta bota egiten diren edalontzien erabilpena ekiditea (zabor gutxiago sortzea, alegia).

Azkenik, Ficoban abenduaren 16tik aurrera ospatzen hasi den Gabonetako PINean kontsumo arduratsuari buruzko eta birziklapenari buruzko tailerrak antolatu ditugu Txingudiko Udaltalde 21en baitan. Era berean, kontsumoari buruzko 4 "sketch" edo antzerki ere prestatu ditugu:

-Birziklapenari buruzko tailerra PINak irauten duen egun guztietan egingo da.

-Kontsumo iraunkorrari buruzko tailerra 4 egunetarako antolatu dugu; abenduak 16 (16:00etatik 18:30etara), abenduak 23 (16:00etatik 18:30etara), abenduak 30 (16:00etatik 19:00etara) eta urtarrilak 4 (16:00etatik 19:00etara).

-Kontsumoari buruzko 4 "sketch"(guztiak 16:00etatik 17:30etara): abenduak 22an, 26an, 27an eta urtarrilaren 3an.



Talaia ikastetxeak gabonak zoriondu ditu

Talaia Ikastetxeko Bigarren Hezkuntzako ikasleek hiritarrei Gabonak zoriondu nahi dizkiete. Institutuan ohitura bilakatu den ekimen bati jarraiki, ikasleek Gabonekin loturiko bertso batzuk idazten dituzte, baita egun berezi hauekin loturiko marrazkiak eginez ere.

Epaimahai batek aurkeztutako lanak aztertzen ditu. "Christmas"

delako hau ikastetxeak argitaratu egin du eta ikasle bakoitzaren etxera ale bat helarazi egingo da jai -egun zoriontsuak desiratuz.

Hala ere, saritutako lanez gain, argia ikusi ez duten beste asko daude. Horietako batzuk argitaratu ditugu orrialde hauetan, merezi baitu ikasle hauen lan bikainek argia ikustea.

Irati Hernandez



IRITSI DIRA GABONAK

Beste urte bat joan zaizu
Eta gauza pila utzi duzu egin gabe
Urtero bezala.

Hainbeste gorroto duzun kontsumismoak
Guztia betetzen du
Urtero bezala.

Hotz eta gosez bizi direnek
Hipocresia baino ez dute bizigai
Urtero bezala.

Baina, hala ere, urtero bezala,
Maite duzun hori besarkatu
Eta mundua alda dezakezula sentitu duzu

Aitzakia ederra dira Gabonak, bai horixe!!!



Lide Viñas



Olatz Palacios



Markel Etxeberria

Urtea joan zaigu
Motel ala azkar
Bertan in dugularik
Barre eta negar,
Iristen ari dira
Eguberri eta Urtezahar
Gabonak ondo pasa
Ta Urteberri ona izan!

bar-restaurant
**arrantzaleen
kofradia**

Menú del Día Menú Especial
Carta
Pintxos Fríos y Calientes

Pº Iribarren, s/n -nueva lonja
20280 - HONDARRIBIA (Gipuzkoa)
Tel. 943 64 42 12

Hemen zure opariak eros ditzakezu; PSP, PS2, filmeetako pertsonaiak...

The Big Orange

Puntuak opariengatik aldatu, Orange txartelarekin

Etxez-etxeko zerbitzua duen zure bideo kluba

OLENTZERO ZIBERNAUTA



Paul Salaberria

Olentzero joan zaigu
PCa erostera
Intentzioarekin
Modernizatza.
Ikusi duenian
Birusak daudela
Antibirusa jarri
Dio badaezpada

Horra, horra,
Gure Olentzero
Xagua eskuan duela
Eserita dago
Internet ari badu
Messenger-arekin
Asko "txateatzeko"
Munduko umeekin.



Gabriel Maria

Inolaz ezin dugu
Olentzero ase
Disco gogorrean du
Leku pila libre
ADSL badauka
20 mega arte
zuen opari denak
bidaltzeko laster



Julen Castrillon



Manex Aldai

GABONETAKO MEZUA

Abenduko egun zoriontsu hauetan
Denok elkartzen gara giro txit onean
Eguberriak ditugu muturren aurrean
Ondo pasa dezagun lagunen artean.
Urte bukaeran jango dugu mahatsa
Gero txanpaina eta parranda latza
Gure zeregina onak izatean datza
Bestela Olentzerok utziko du ikatza



Ane Unzueta

Urtero bezala Gabonak datoz
Neguko egun ilunak argituz
Eta hotza berotuz.

Aurtengo Gabonak bereziak
izan daitezen
Gure zoriontasuna eta laguntza
Gehien behar dutenei hurbilt-
zeko aukera
Ezin dugu pasatzen utzi.



Marina Elozegi

Hortaz, utz dezagun alde bate-
ra materialismoa
Era ireki ditzagun gure bihot-
zak.

Bizi ditzagun Gabonak!



Beñat Lapitz

Urte berrian
Begira zaitez ispiluan...
Lehengo proposamenak
Non gelditu dira?
Argaldu al zara?
Mezatarra joan al zara?
Familiari kasu egin al diozu?
Ez erantzun,
Bakarrik hausnartu,
Eta...
Datorren urterako...
Kontuan hartu!!!

OTXOA JANARIDENDA

*Barazki, fruta eta
horrelakoetan aukera handia*

San Pedro 43
Tel. 943 64 16 84
20280 HONDARRIBIA

Ondare

- GOZOTEGI
- OKINDEGI ARTESANALA
- TERRAZADUN
- KAFETEGIA
- HAUR FESTAK

C/Amute, 6 bajo
Tel.: 943 64 62 82
HONDARRIBIA

Aita eta amek Guraso Eskolan parte hartzen dute

Bigarren urtez Guraso Eskolan parte hartzea nabaria dela argi dago, Udal Prebentzio Komunitario Zerbitzuak antolatuta, Talaia eta Ama Guadalupekoa ikastetxeetako Gurasoen Elkartarekin batera, eta nola ez, ikastetxeetako zuzendaritzarekin batera, ia ehun guraso biltzen dira 2006ko azaroan hasi eta 2007ko martxoa bitarte garatuko den eskolan. Taldeak, gaztearen adin eta hizkuntzaren arabera banatzen dira.

Gurasoen parte hartzea eta inplikazioa kontuan izanda, oso balorazio positiboa egiten du Prebentzio Komunitarioaren Zerbitzuak iazko edizioari buruz. Sesioak ikastetxeetan garatzen dira, Talaiaren kasuan Biterin eta Ama Guadalupekoarenean Lehen Hezkuntzako eraikinean. Astelehen eta asteazkenetan izaten dira bilkurak 17:30etatik 19:00etara. Bileren hasieran esposizio teoriko bat egiten da eta ondoren gurasoen parte-hartzearekin hasten da, beren galdera, iradokizun edota dudak azaltzen dituztelarik.

Baina zer da Guraso Eskola?

Gizarte laguntza talde bat, bere kideentzat interesa duten gaiak lantzen dituen topaketa esparru da. Gaiak partaideek hautatzen dituzte, bere interesa eta esperientziaren arabera. Gurasoentzat laguntza taldean beste guraso batzuekin esperientzia horiek bultzatu eta landu nahi ditugu.

Prebentzio komunitarioak sustatzen dituen taldeetan, taldeko komunikazioa zuzentzen eta errazten duten bi profesionalen laguntza dago. Profesionalek, Psikologoa eta Gizarte hezitzaileak, gurasoen kontaktetaren alderdiei zentzu bat ematen diete, gainera, beraien semeen jokaerek sortzen dituzten kezkei, antzematen diren zailtasunei, eta abarri. Talde hauetan edozein gurasok parte har dezake, beraien bizipen, kezka edo semeen heziketaren aurrean sor daitezken arazo guztiak jorratzeko.

Gurasoentzat zenbait talde aurreikusi dira. 10 urte bitarteko semeak dituzten guraso taldeak, edota nera-bezaroan semeak dituzten guraso taldeak.

GURASO ESKOLA 2006 - 2007

HAURTZAROA

(10 urte arte)

"Haurrak, gurasoak eta janaria".

Familia heziketarako ideiak, jarraibideak eta orientazio batzuk.

"Eskolaz kanpoko agenda".

Eguneroko erritmoak: jarduera garaia, aisialdia, atsedena.

"Aisialdia eta familia"

Aisialdi eta denbora libreari buruz orientazio hezitzaileak.

Zure semea beldur da?

Beldur arrazional eta irrazionalak.

"... noski, ni inoiz..."

Jeloskortasuna haurtzaroan, heziketarako orientabideak eta guraso jarrerak.

NERABEZARO AURREKO GARAIA

(10-12 urte)

"Nerabeak eta elikadura. Liskarrerako beste arrazoi bat?"

Elikadura arazoen prebentzioa familian.

"Orduak ispi luaren aurrean".

Nerabezaro aurreko garaian autoestimua ulertu eta hobetu.

"Ikasi eta ezberdintasunak onartu"

Familian, aniztasunean heziketarako orientazio batzuk

"Lagunak amesgaizto bilakatzen direnean"

Talde presioa identifikatu eta honi aurre egiteko gure seme-alabei laguntzen jakitea.

" CHAT, MESSENGER, MP4, JPG, 3G, TRIBANDA, E-MAIL, X-BOX.. "

Ez harritu... teknologia berriak eta familia heziketa. Teknika, aukera hezitzaileak bihurtzeko irizpideak.

Hand in Hand, produktu ekologikoak

Pertsonaren oinarrizko eskubideak errespetatuz egiten diren elikagaiak

Gehienok konturatuko ginen azken urte hauetan zenbait produktu "berri" azaldu direla gure azoketan. "Berri" honetan esan nahi duguna zera da: produktu naturalak dira, era naturalean ekoiztuak eta, gehienetan, zertxobait garestiagoak. Produktu hauei biologiko edo ekologiko deitzen zaie.

Begi bistan da zer bait mugitzen ari dela nekazaritzaren munduan. Baina zer gertatu da? Orain arte kalitate baxuko janariak erosi al ditugu? Ez gaituzte bada engainatuko produktu biologiko hauekin? Janari biologikoa? Ekoizkin biologikoak agertzearen arrazoia bilatzeko, lurra lantzeko era eta gure uztak hobetzeko erabiltzen diren ongarri desberdinak aztertu behar dugu besteak beste.

Nekazariak betidanik erabili izan dituzte ongarri organikoak lurra emankorra bihurtzeko, baina ongarri inorganikoen etorrerarekin betikoak izan diren ohiturak baztertu dituzte eta denborak aurrera egin ahala, hamaika arazo sortu dira: emankortasun arazoak mesedegarri diren mikroorganismoen desagerpenarengatik, gai organiko eza, lurpeko uren kutsadura,... eta azken finean, elikagaien kalitate baxua bai zapore aldetik, bai nutrizio aldetik.

Hau guztia areagotu egin da nekazaritza industrialaren planteamenduekin, instituzioek industria kimikoei ematen dien laguntzarengatik eta azken hauek bere produktuei buruz zabaltzen duten informazio partzialagatik.

Nekazaritza biologikoa arazo hauei aurre egiteko sortu den "filosofia berria" da eta honi buruz jardungo gara ondorengo orrialdetan, ea aurrerantzean hobeto ulertzen dugun zer diren gure herriko azoketako produktu "berri" horiek. Joaquín Araujok dioen bezala "atzeratzen aurreratu" deitutakoa da nekazaritza biologikoaren proposamena.



Ofertas & Eskaintzak

- Lima soja esnea: 1,95 €
2 unitate %20 deskontua & 6+ 2 dohainik
 - Lima Txokolatezko batidoa 200ml: 1,10 €
2+ 1 dohainik
 - Sanituri soja flana 250 gr: 2,30 €
2 pack % 20 deskontua
 - QI Te berdea mentarekin: 3,65€
2 + 1 dohainik
 - Beste esne eta produktoak
6+1 dohainik & 12 + 1 dohainik
- .Arreta pertsonala*


EUSKAL LIBURUAK EROSTEKO AUKERA OLEARSO LIBURUDENDAN



EZ DADILA EGUZKIA SARTU


Gerrako lubakitik futbol-zelaira eramane zizuten hainbat gazte 1937ko udaberrian. Futbolariak ziren denak ere, Espainiako ligan hainbat ekipotan jokatu ohi zutenak, baina

baloia ordez fusila hartu zutenak, Euskadi eta Errepublika defendatzeko. Agintariak, ordea, galtza motxetan jarri zituzten berriez, Euskadiko selekzioa osatuz eta European barrera zenbait partida jokatuz mesede handiagoa egingo zutelakoan. Propagandaren partida inportantea baitzen gerra irabaztekoan, lubakiak bezainbat.



HONDARRIBIA ETA IRUNGO EUSKARA

Hondarribiko eta Irungo hizkerak dialektologi alderditik aztertzea da liburu honen helburu nagusia: hizkuntz ezaugarri eta arau nagusien bilduma egin, eta zein ezaugarrietan diren berdinak eta zeinetan ez agertzea. Era berean, hizkerok euskalkien sailkapenean dute kokaguneari buruzko argibideak ematea



HONDARRIBIA IRUDITAN

Duela urte batzuk, udal artxiboak postal bilduma eskuratu zuen, XIX. mende bukaeratik, gure hiriko bizitza, arkitektura eta paisaia islatzen zituenak. Proiektu honen bidez, postalak interesatuen esku egotea lortu nahi da. Hori dela eta, postal hauek CD batekin argitaratu dira. Postal hauek, gaika multzokatuak, Martin Iturbe jaunak eta Jesus Mari Mendizabal "bizargorri" idatzitako olerki eta bertsoen sarrera dute. Gainera CDan, hiriko kulturaren ondarea diren hainbat musika biltzen dira. Idazkera, irudia eta musika bat egiten diren proiektua.



HONDARRIBIKO HISTORIA

Liburu honen bidez gure hiriaren Historia bildu nahi izan da era kronologikoan Historiagutietatik frankismora arte. Horretarako 15

historialariko taldearen lankidetzaz izan da Deustuko Unibertsitateko Jose Luis Orella irakasleak koordinatuta. Fidaragarrtasun historikoa duen liburua eta derrigorrezko kontsulta liburu bihurtuko dena. Historialari taldea honako hauek osatzen dute: Jesus Altuna, M^a Mercedes Urteaga, Jose Luis Orella, Lourdes Soria, Manex Goienetxe, Antonio Prada, Carlos Larrinaga, Pedro Barruso, Alvaro Aragon, Iñigo Hidalgo, Maria Isabel Astiazaran eta Txomin Sagarzazu.



KARABANA BATEAN BIZI NAIZ

Daniel karabana batean bizi da gurasoekin, arrebeekin eta aitonarekin. Beti leku batetik bestera ibiltzen dira. Aitona asko maite du Danielek, nahiz eta batzuetan gogaitu egiten den haren historia zaharrekin. Aitonak jende ibiltarien kontu zaharrak berritzen jarduten baitu beti; beren bizimodua nolakoa zen garai batean, karroan ibiltzen zirenean behorak tirata, edo suaren garrantzia, suak berotatsuna ematen baitu, eta denik eta sendabiderik onena baita, aitonaren esanetan, bat gaixotzen denean. Danielek gustuko du karabanako bizimodu ibiltaria, abentura asko bizitzeko aukera ematen baitio horrek. Eta lagunei nola bizi diren kontatzen dienean, inbidia eragiten die guztiei.



PASEOS POR LA CIUDAD

Hirian barrena irudimezez ibiltzen lagunduko dizu liburu honek, ingurari erreparatzeko eta etxe edo ikuspegi baten aurrean gelditzea gonbitea egingo dizun testu baten laguntzaz. Testuarekin batera modu eraginkorrean, irudimena piztuko dizuten akuarelak, marrazkiak, irarlanak eta argazkiak azalduko zaizkizu.



**OLEARSO LIBURUDENDAN ESKURAGAI DITUZU
EUSKARAZKO LIBURU UGARI**

ETOR ZAITEZ ETA GALDETU!

**San Pedro 12 - HONDARRIBIA
Telf: 943 64 25 25**




Jarduerak Eguberriak pasatzeko

Zeure esku dago!
Apurtu tratu txarren katea!
Egin dezakezu!

Zalantzarik baduzu, arazoren bat, edo zerbait esateko...

LAGUNTZEKO PREST DAUDE!
Askatasun osoz jardun dezakezu helbide honetan:

www.ikasle.net / ikasle@hezkuntza.net



Eguberriak!! Egun hauetan, Zer??????

Abenduaren 20 tik 24 ra		San Pedro kalean Euskal disko eta liburu azoka
Abenduaren 21 ean	Egun osoan zehar	San Pedro kalean Santo Tomaseko feria
	17:30etan	Kasino Zaharran " Academia de oro " izeneko antzezlanak
Abenduaren 24an	10:00-11:30	Santiago kalean Haur Olentzero lehiaketa
	12:30etan	Gipuzkoa Plazan Haur Olentzero lehiaketaren <i>gabonsari banaketa</i>
	17:00etan	Gipuzkoa Plazan Haurren Gabon Kanta Jaialdia
	18:00etan	Gipuzkoa Plazan Gabon Kanta eta Olentzero Jaialdia helduentzat
Abenduaren 25ean	19:00tan	Gipuzkoa Plazan Jaiotza Biziduna
Saindua Gaztelekua	Ekintza bereziak antolatuta dira. Informazio gehiago nahi baduzu zatoz bulegora edo Gaztelekutik pasa zaitez	



Txiplao Industrialdea, 27 - HONDARRIBIA
Tel/Fax: 943 64 02 56

RAFAEL
TABERNA · BAR



San Pedro Kalea - T. 943 64 61 14
20280 Hondarribia

Nola deitzen zaio bide honi



Heldu gara berriz ere irakurleak hain gustuko duen aldizkariaren atalera. Udal Euskara Batzordean jasotzen den gutun kopurua ilusita, lehiaketan gero eta jende gehiagok parte hartzen duela ohartu gara. Ia gehienek gainera erantzun egokia ematen dute. Uztaileko alean jarritako galderari ia 60 pertsonak erantzun diote, eta hori itauna ez zela hain erraza.

Azken alean egin genizuen galderari irakurle gehienek egoki erantzun dute. Berueteiko hormak zen erantzun egokia. Erantzun egokia eman dutenen artean, irabazlea **Inaxio Oronoz Sagarzazu** izan da. Berari dagokio bi pertsonentzako afaria Beko Errota jatetxean.

Oraingo honetan Portuan dagoen kale bati buruz ari gara. Arrantzale Auzotik Mourlane Mitxelenara eramaten duen bidea da, baina Hondarribian izen konkretu bat dauka. Hori da galdetzen dizueguna. Erantzuna izandakoan, bidali Udal Euskara Batzordera urtarilaren 15 aurretik.

SAGARDOTEGIA JATETXEA

*Horra hor goian errota
irina pur pur ihota
ondo jan eta edan paketsu eta alai
hor duzue Beko-Errota*



JAIZUBIA • Tel. 943 64 31 94 • 20280 HONDARRIBIA

Errege magoak eta haurtxoak duela mende erdia

Hondarribiaren historiaren lekuko diren irudiak argitaratzen ditugun atalera iritsi gara berriz. Udal Artxibategiak daukan altxor handiari etekina ateratzea da atal honen helburuetako bat, baina hilerok ez da zertan argazki berdinak atera behar.

Oraingo honetan gure irakurle batek bidalitako irudi bat argitaratzen dugu. 1957. urtean ateratakoa da. Errege Magoa eta aurrez aurre zoriontsu dauden bi haur, aski ezagunak hiruak Hondarribian. Urte haietan, Erregeak Kerizpera heltzen ziren urtarrilaren 5ean, 18:30ak aldera, orduko prentsak dioenez. Handik Portura jaisten zen Kabalgata, Kofradian geratzen ziren haurrei opariak banatzeko. Une hortan ateratako irudia dugu hau. Gero, Kale Nagusira igotzen zen prozesioa, Udaletxean zegoen jaiotza ikustera, han opari gehiago banatzen zirelarik.

Hurrengo geldialdia, San Gabriel egoitzan izaten zen, han ere opari gehiago banatzen zirelarik, haur eta adinez aurreratuak zeuden guztientzat. Ohitura apur bat aldatu egin da, hala ere, haur eta gaztetxoek egun honetan daukaten ilusioa gorde egin da, eta hala segi dezala.

Era honetako argazkiak dituzuenok eta Hondarribia aldizkarian argitaratzea nahi duzenok, Udal Euskara Batzordera eramatea besterik ez duzue.



**GOZOTEGIA
KAFETEGIA**

San Pedro, 4 - 20280 - HONDARRIBIA
Tel: 943 641 047



arroka berri
r e s t a u r a n t e

Hiqer Bidea, nº6 - 20280 HONDARRIBIA
Tel. 943 642 712 - Fax 943 641 105
www.arrokaberri.com



Fermin Olaskoaga

FERMIN OLASKOAGAk jasotako datuak:

Azaroa2006

JAIOTZAK

4an: NAIA Alcaraz Calvo, Pasaia Aitor eta Pasaia Eneitzaren semea.

4an: BITTOR Perez Amunarriz, Donostiako Javier eta Hondarribiko Miren Josuneraren semea.

6an: ZAID Bakkach Jami, Tanger-ko (Maroko) Nourediune eta Tanger-ko (Maroko) Bochraren semea.

7an: AISHA Santana Pikabea, La Romana-ko (Dominikar Errepublikak) Jouanny Enrique eta Irungo Miren Josuneraren alaba.

10ean: UXUE Zabala Arrizabalaga, Irungo Aitor eta Hondarribiko Karmeleren alaba.

12an: LAIDA Miranda Sarasola, Burgoseko Victorres Santiago eta Donostiako Leireren alaba.

16an: AINES Gende Arruabarrena, Hondarribiko Zigor eta Hondarribiko Mertxeren alaba.

19an: YAGO Chaverri Lopez, Madrileko Santiago eta Hondarribiko Marinaren semea.

19an: IRENE Puente Etxarri, Donostiako Jon eta Donostiako Idoiaren alaba.

19an: MIREN Lara Wyssensbach, Valladolideko Ignacio eta Donostiako Martaren alaba.

21ean: GALDER Perez Moresma, Irungo Javier eta Donostiako Susanaren semea.

22an: ISMENE Oianguren Gil, Irungo Francisco eta Donostiako Virginiaren alaba.

23an: NORA Uriz Cordoba, Irungo Jose Ramon eta Hondarribiko Myriamen alaba.

24an: LUCIA Pulido Marques, Irungo Francisco Javier eta Irungo Maria Lararen alaba.



EZKONTZAK

4an: JULIAN Gomez Garcia, Irungoa, eta **ALICIA Gil Merino**, Irungoa.

11n: BLAS Ugalde Larrea, Irungoa, eta **NAGORE Alvarez Charneco**, Donostiakoa.

11n: GONZALO Carrion Insausti, Hondarribikoa, eta **MARIA AUXILIADORA Flores Campos**, Irungoa.

18an: AITOR Iriazabal Iza, Hondarribikoa, eta **NEREA Rodriguez Garagarza**, Irungoa.

25ean: DAVID Molina Galuan, Irungoa, eta **ANA BELEN Prieto Perez**, Donostiakoa.



HERIOTZAK

2an: MARIA PILAR Martinez Agirre, Hondarribikoa, 65 urte, Arrantzale auzoan.

3an: JOSE Tumas Lasaga, Hondarribikoa, 73 urte, Lurgorin.

9an: RAFAEL Martin Bello, Garrorillas de Alconetar-koa (Caceres), 55 urte, Santa Engrazia kalean.

11n: RAMONA MARCIANA Anzisar Arozena, Hondarribikoa, 103 urte, Txendonegoia baserrian.

19an: EUGENIA Etxebeste Ugartemendia, Hondarribikoa, 88 urte, Amute kalean.

19an: DOLORES Martinez Navarro, Guadix-koa (Granada), 90 urte, San Gabriel egoitzan.

20an: JOSE Alvarez Sajara, Chiclana-koa (Cadiz), 77 urte, San Gabriel egoitzan.

23an: JUAN Fernandez Rodriguez, Minas de Rio Tinto-koa (Huelva), 88 urte, Santiago kalean.

26an: MARIA Maia Abanz, Lesakakoa, 83 urte, Arrantzale auzoan.

27an: MANUEL Karrera Olaskoaga, Hondarribikoa, 74 urte, Tximista kalean.

29an: MARIA CARMEN Lasa Agirre, Irungoa, 58 urte, Loraitz bi etxadian.

30ean: MARIA JOSEFA Dominguez Suarez, Herrera-koa (Sevilla), 90 urte, San Gabriel egoitzan.



AZAROKO EGURALDIAREN DATUAK. (Hondarribiko aireportutik jasoak).

Temperaturarik goren:	23,6° C, hilaren 15ean.
Temperaturarik beherena:	3,6° C, hilaren 30ean.
Bataz besteko tenperatura:	14,7° C.
Bataz besteko hezetasuna:	% 69
Euri-litroen kopurua:	172,6 litro.
Egunik euritsuena:	hilaren 21ean 71,8 litro.
Euri indartsuenen unea:	hilaren 18ko 6,40tan, 39,6 litro.
Egun euritsuak:	15 egun.
Elur egunak:	0 egun
Kazkabar egunak:	0 egun
Ekaitz egunak:	0 egun
Behe-laino egunak:	0 egun
lhintz egunak:	13 egun
Eguzki kopurua:	129,1 ordu
Bataz besteko presioa:	1018,5 milibar
Presiorik goren:	1032,7 milibar, hilaren 29an
Presiorik beherena:	991,2 milibar, hilaren 24an
Haizea >55 Km/ord.	8 egun
Haizerik indartsuena:	hilaren 24ko 16,42tan, 99 Km/ord.

ARRANTZALE KOFRANDIAN AZAROAN SALDUTA-KO ARRANTZA KOPURUAK

Txitxarroa (Trachurus trachurus): 8.716,60 kilo
Hegalaburra (Thunnus thynnus): 31.715,00 kilo.
Hegaluzea (Thunnus alalunga): 9.256,00 kilo.
Dorada edo Urraburu (Sparus aurata): 159,90 kilo.
Boga (Boops boops): 2.136,30 kilo.
Zarakuntza (Oblada Melanura): 6.870,90 kilo.
Zapatari (Gerris): 568,40 kilo.
Erla (Lithognathus mormirus): 12.172,80 kilo.
Makarela (Scomber japonicus): 13.829,10 kilo.
Korroko (Chelon Labrosus): 1.873,50 kilo.
Muxar handia (Diplodus sargus): 2.259,40 kilo.
Bestelakoak: 517,30 kilo.

HERRIKO BIZILAGUNEN GORA-BEHERAK AZAROAN

Altak: Jaiotzak: 14, eta kanpotik etorriak: 63
Bajak: Hildakoak: 12, eta herritik joanak: 52
Biztanle kopuru orokorra: 16.399 bizilagun.

AZAROKO UDAL LIBURUTEGIKO DATUAK.

Mailegatutako liburuak: 465 euskaraz, 1234 gaztelaniaz eta 23 bestelakoak. Guztira: 1722 liburu.

Ekarri diren liburu berriak: 25 euskaraz, 82 gaztelaniaz eta 3 bestelakoak. Guztira: 110 liburu.

Bazkide berriak: 9 gizon eta 21 emakume. Horietatik 17 heldu eta 13 haur. Guztira 30.

Gehien mailegatutako liburuak:

Haurrak:

Euskeraz: GENECHTEN, Guido Van.- Amatoxo, zergatik.- Ibaizabal.

Gaztelaniaz: IBAÑEZ. -Las mejores aventuras de Mortadelo y Filemón.- Ed. B.

Helduak:

Euskeraz: ATXAGA.-Lekuak. - Elkar.

Gaztelaniaz: FALCONES, Ildefonso.- La catedral del mar.-Grijalbo.

Joski

. LENTZERIA ARROPA
. HAURRENTZAT ARROPA

Santiago Kalea, 21 Tel.: 943 64 17 65
20280 HONDARRIBIA



Gabonetako apainketa
polit bat egiteko,
Endaneatik pasa zaitez

ENDANEA
HAZTEGI - VIVERO
LORE ETA LANDARE MINTEGI BERRIAN
ETXEA LORATZEKO BEHAR DEZUN GUZTIA

Jaizubia Auzoa, 40 - 20280 Hondarribia
Tel. 943 64 17 10 - www.endanea.com

